



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Euskara ■

Esp. kodea: 2024EDIR0009

Gaia: 2024ko dirulaguntza eskaera: Goiena
papera eta telebista nahiz irratia egitasmoetarako

ALKATEAREN EBAZPENA
N24/01760

Legeak ematen dizkidan eskuduntzez baliatuz, honen bidez

EBAZTEN DUT:

Euskara zinegotzi ordezkariak, ekainaren 18ko dataz, egindako proposamen hau onartzea:

Goienaren dirulaguntza eskaera, 2024an udal irratia finantzatzeko

Goiena Komunikazio Taldea kooperatiba elkarteak dirulaguntza eskatu du, udal irratia 2024an finantzatzeko. Hortaz, bada, eta Euskara sailaren txostena ikusirik, haxe proposatzen dut:

Lehenengo.- Goiena Komunikazio Taldea kooperatiba elkarteari 30.000 €-ko dirulaguntza ematea, 2024an udal irratia finantzatzeko, 1-02-10-471-335-30-00 partidaren kontura (RCT: 167/24).

Bigarren.- Dirulaguntza hitzarmenak jasotzen duen legez ordainduko da:


"Hitzarmen honek finkatzen duen dirulaguntza hamabi zatitan ordainduko dio Arrasateko Udalak Goiena Komunikazio Taldeari. Hitzarmen hau sinatu eta berehala ordainduko dio Arrasateko Udalak Goiena Komunikazio Taldeari urte hasieratik hona pasatu diren hilabeteen likidazioa, emandako aurrerakinak deskontaturik."

Hirugarren.- Elkarte horrekin hitzarmena sinatzea, urteko jarduerako dirulaguntza arautzeko (ikusi eranskina).

Laugarren.- Alkateari ahalmena ematea hitzarmen hori sinatzeko.

Bosgarren.- Onuradunari 10 eguneko epea ematea, jakinarazpena jasotzen duen egunetik kontatzen hasita, Udalari adierazteko agindutako dirulaguntza onartzen ote duen. Epe horren barruan kontrakorik adierazi ezean, ulertuko da inplizituki onartzen duela. Laguntza onartzen duela jakinarazteko, eta horrela ordainketa abiarazteko, nahikoa izan liteke Euskara Sailera posta elektronikoa bidaltzea.

Alkatea



MAIDER MORRAS AZPIAZU
18/06/2024

Sinatzaila/k	Alkatea: Maider Morras Azpiazu			
Kodea	N24/01760	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA11HNX.M.SL9P			
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA11HNXM.SL9P			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.				